



2024SECG0005
5.bilera: OHIKOA 2024/06/20

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA

BILERA ZK.: 5/2024
EGUNA: 2024/06/20
HASIERA ORDUA: 17:05
AMAIERA ORDUA: :17:20
TOKIA: Bilera gela, 2. solairua.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.
Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.
Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba

Bertaratzea desenkusutzen dute:

Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea.
Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 23an eginiko bileraren akta aurkeztu zen.
Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, akta onartu zuen.

2.- Gazte Artista Bisual berriak sustatzeko sariaren 2024ko deialdiaren ebazpena.

2024ko Gazte artista bisual berriak sustatzeko lehiaketan lan bakarra jaso da, eta saria arautzen duten oinarrietako 8.enean ezarritakoari jarraituz, saria ezin da hutsik utzi.

Ikusita eskaerak aztertzeko izendatutako instrukzio-organoak eginiko ebazpen proposamena, saria Paula de Luisa eta Eva Kareaga elkarrekin aurkeztutako SUTERRAK proiektuari emateko aldekoa.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartu zuen gazte artista bisual berriak sustatzeko saria ematea PAULA DE LUISA eta EVA KAREAGA elkarrekin aurkeztutako SUTERRAK proiektuari.

3.- Udalerrian, Itziarko Toki Entitate Txikiaren lur eremutik kanpo, eragina izango duten kultur programak edo jarduerak antolatze dituzten irabazi asmorik gabeko herriko elkarteei eta pertsona fisikoei zuzenduriko dirulaguntzak esleitzea.

Ikusita eskaerak aztertzeko izendatutako instrukzio-organoak eginiko ebazpen proposamena, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, ondoren jasotzen diren dirulaguntzek ematea onartu zuen:

- Erakunde eskatzailea: **DEBAKO KULTUR ELKARTEA**

Proiektua: GURE GIRO

Aurrekontua: 12.774,00€

Eskatutakoa: 9.000,00€

Dirulaguntzaren zenbatekoa: 7.775,00€

- Erakunde eskatzailea: **KULUNKA DANTZA TALDEA**

Proiektua: KULUNKA DANTZA EMANALDIA.

Aurrekontua: 4.315,00€

Eskatutakoa: 2.915,00€

Dirulaguntzaren zenbatekoa: 1.462,00€

- Erakunde eskatzailea: **AITZURI ABESBATZA**

Proiektua: UDAKO KONTZERTUA.

Aurrekontua: 4.720,00€

Eskatutakoa: 4.720,00€

Dirulaguntzaren zenbatekoa: 3.346,00€

- Erakunde eskatzailea: **DEBAKO MUSIKA BANDA**

Proiektua: QUEEN KONTZERTUA.

Aurrekontua: 4.599,00€

Eskatutakoa: 4.599,00€

Dirulaguntzaren zenbatekoa: 3.130,00€

- Erakunde eskatzailea: **DEBAROCK KOLEKTIBOA**

Proiektua: UDAKO JAIALDIA.

Aurrekontua: 3.690,50€

Eskatutakoa: 3.690,50€

Dirulaguntzaren zenbatekoa: 2.393,00€



DEBAKO UDALA

2024SECG0005

5.bilera: OHIKOA 2024/06/20

- Erakunde eskatzailea:	SENZALA EUSKADI
Proiektua:	CAPOEIRA TOPAGUNEA.
Aurrekontua:	7.000,00€
Eskatutakoa:	2.500,00€
Dirulaguntzaren zenbatekoa:	1.894,00€

4. Eskari eta galderak.

Ez ziren egon.

Horrenbestez, beste aztergairik ez dagoenez, 17:20an amaitu zen Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Joseluis Salaberri Iñarra
Idazkaria



Alazne Txurruka Aliko
Alkatea

